

Noaia !!



Buruntzazpi,
txirrindulari eskola berria



Gogotsu dator
Txerriki Antzerki Taldearen harrobia

Zer erreko litzateke erraustegian?

ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASEPRIA HERRIA
BIZIRIK

Materia organikoa	%33,83
janari gordina	%22,82
janari prestatua	%9,04
lorezantza hondakinak	%1,97

Guzti hau
energia
eta
konpost ongarria
sortzeko
egokia da!

*Iturria: San Markosko
Mankomunitatearen Hiri
Hondakinei buruzko Plan
Integrala 2002-2016.

Osasun-tekniko batzordea



Berogailuetarako gasoil zerbitzua prezio onenean



etxez etxeko banaketa

Eskaerak telefonoz ☎ 943 361 114 edo kooperatiba bertan

Alkartasuna | Uzurbilgo Baserritarran Kooperatiba • alkartasuna@uzurbilgo.com • Ugarte Inautzatasun 12, USURBIL

Albistea iruditan !!

Ireki dute Artikulako pasabidea

Egun batzuk pasa dira Artikulako pasabidea ireki dutenetik. A-8 autopista zabaltzeko lanak tarteko, itxi egin zen pasabide hori duela urtebete inguru. Baina duela egun batzuk jarri zuten pasabide berria eta jada erabiltzeko moduan da berriz ere. Oinezko, txirrindulari nahiz auto gidariek erabiltzeko moduko zubia da jarri dutena.

Hilabeteak dira Orio-Aritzeta autopista zatian lanean ari direla. Bi aldeetan hirugarren bidea eraikitzen ari dira, eta horrek trabak eragin dizkie egunero bide hori egin behar duten gidariei eta bidaiariei.



Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com
Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

LUDOTEKA EGITEKO ASMOA, AURRERA **5. OR.**

KULTUR AHOLKU BATZARRA, HILAK 28 **6. OR.**

GURE PAKEAREN BATZARRA **7. OR.**

USURBIL DATUTAN **10. OR.**




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

URDAINTZI S.L.
eraikuntza



ARRAINDEGIA
PELLO

Puntapax Kalea,7
Tlf 36 21 64
USURBIL

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Ojandegia - Gozotegia

LABE-GOXO



NEREA ZINKUNEGI

“Trinaka”

“¿Será cierto eso del amor cuando todo el mundo pasa de dos en dos?” esaldia argitaratu zuen Mario Benedetti poeta uruguaiarrak duela urte batzuk liburu batean.

Eserleku publiko batean eserita eta jendeari begira zegoen aldiren batean otuko zitzaion idazleari esaldia. Hala irudikatzen dut behintzat. Sarritan egin izan dut neronek ere, hiriko banku batean eseri eta, ezezagunari begiratu ostean, bizitza bat diseinatu diot; lanbidea, familia, kotxea, maskota... Diseinua burutzeko unean aurre-juizioek pisu handia izaten dute irudimenean, hala nola; ezezagunaren janzerak, orrazkerak, eskuek, (bistan baldin baditu), ibilerak, besazpiko egunkariaren mantxetak, ahotsak... Dirudienez, dirudi duguna gara.

Eta arrazoi du Benedettik, aurretik pasatzen den

populazioaren ehuneko handi bat binaka pasatzen da, pasieran, autobuseko eserleketan, kafetegietan... Bikotekideak irudikatzen ditut gehienak, heterosexual nahiz homosexualak, amoranteak, senar-emazteak, senar-senarrak, emazte-emazteak, maitaleak... Ez dakit zergatik. Anai-arrebak, anaiak edo ahizpak tarte-ka, elkarren arteko antza nabarmena denean, batez ere. Gutxiagotan ikusten da pertsona bakarka, bizikletan doana, presaka autobusa hartzera doana, TAOko langilea... Baina binaka... Binaka funtzionatzen dugu, antza. Gizakia monogamoa ote? Maitasuna hain handia izaki biren arteko gauza al da? Ez al da asko alferrik galduko? Cigala kantaore andaluziarrak bi emakumerekin maiteminduta egotea posible dela azaltzen du abesti-tesi batean, arrapazank!!! Pentsatzen jarrita, bizitza... bizitza bera ere bi-rekin hasten da. A zer rolloa!

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-milka!

Palestina askatu

Egun hauetan Gazan gertatzen ari dena ikusita Usurbilgo Elkartasun Taldeak kontzentrazio baterako deialdia egiten dugu eraso militar berri hau salatze-ko. Ezin dugu onartu sarraski berri hau. Israelek milaka bonba jaurti ditu Gazako lurraldeko populazioaren aurka; 900 hildako baino gehiago eta 3.500etik gora zauritu eraginez, eta Zisjordanian izan diren protestetan egon diren hilketak eta atxiloketak.

Sarraski hau Palestinan egunero jasaten duten erasoetara gehitzen zaie. Bortizkeria etengabekoa da; hilketak, mespretxuak, bizitzeko ezinbestekoak diren baliabideen gabetzea, ura, argindarra eta osasun zerbitzuak adibidez, eta egun hauetan Gazan gertatzen ari den bezala, gizarte zibilaren kontrako nahitaezko erasoak. Eraso hauek Nazioarteko Eskubideak gizateriaren kontrako krimetzat jotzen ditu.

Israeleko estatuak ordezkatzen duen sionismoak Gazako gizarte masakratu du berriro ere. Israelek ez du Hamasekin bukatu nahi, Israelek palestinar herriarekin bukatu nahi du.

Eta Europar Batasunak, gure agintariek barne, Israelekin dituen harremanak indartuz doa, eta Amerikako Estatu Batuek Israel armaz hornitzen jarraitzen dute, oso egoera kaskarrean bizi den gizarte akabatzeke erabiltzen diren armak.

Okupazioa da zonalde horretan bortizkeria sortzen duena. Okupazioaren bukarak bakarrik ekar dezake bakea eta segurtasuna bi aldeentzako. Palestinan bake justu eta iraunkorra posiblea da baina nazioarteko legedia ezarritik, Nazio Batuen erabakiak betearaziz. Erabaki horietan Israeli exijitzen zaio 1967an okupatutako lurraldeetatik erretiratzea eta palestinar herriari bere autodeterminazio eskubidea

aitortzea eta eki Jerusalem hiriburua izango duen Estatu Palestinar independentea sortzea.

Sarraski hau salatu nahi dugulako, non hiru hildakotik bat 16 urteko baina gazteagoa den, eta gure agintariei; Eusko Jaurlaritzari eta Gobernu Foralari, Israelen ekintza hauen guztien aurrean erantzun garbi bat exijitu nahi diegulako eta gobernu genozida horrekin dituen harreman guztiak etetea ere. Beraz urtarrilaren 24an larunbata, 12:30ean frontoi atzean kontzentrazio baterako deialdia luzatzen diegu herritar guztiei.

Kontzentrazioaren lema: “Okupazioaren eta palestinar herriaren genozidioaren kontra”.

Etor zaitez zure Palestinako zapiarekin palestinarrei elkartasuna adierazteko!!

Usurbilgo Elkartasun Taldea

Ludoteka, martxoa alderako prest

Lehen Zahar Egoitza izan zena, ludotekan bihurtuko da laster. Guraso talde batek Udalari zuzendutako eskaerari erantzunez, martxoa aldera zabaltzea aurreikusten da haurren jolasgunea. Ekimenaren inguruan hitz egiteko ludotekako erabiltzaile izango diren haurren gurasoekin lehen bilera egin zen eguberri aurretik. Udalak, laster bigarren bilkura bat egiteko asmoa du. Egitasmo berriarekin, haurrek negu partean jolastu eta haien garapenerako hain garrantzitsuak diren adin berekoen arteko harremanak izateko aterpe goxo bat izatea ahalbidetu nahi du Udalak. Laster beraz, San Inazio kaleko Zahar Egoitza izandakoak itxura berria izango du.



LASTER, TOKI FINKO BAT IZANGO DU LUDOTEKAK.

Ibilgailuen gaineko zerga ez ordaintzeko aukera dute elbarrituek

Otsaileko lehen hamabostaldia amaitu arteko epea dute elbarrituek, Ibilgailuen Gaineko Zergatik salbuesteko. Eskaera lehen aldiz burutuko dutenei zuzendutako deialdia da. Interesdunek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute udaletxeko erregistroan: ibilgailuen zirkulazio baime-na, ibilgailuaren ezaugarri teknikoaren ziurtagiria eta Gizarte Ekintzak edo haren ordezkotza jatorrizko ziurtagiria. Eskaera orria udaletxean bertan edota www.usurbil.net atarian eskuragarri.

Behatokia eta UEMA, osasun arloko hizkuntz eskubide urraketekin kezkatuta

Euskara beste behin baztertu dutela salatu berri dute UEMAK eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak. Oraingoan, Osakidetzak azaroan ezagutarazi zuen lan eskaintza publikoan. Euskararen ezagutza aintzat ez dutela hartzen diote bi erakundeetako ordezkariak. Kezkatuta ageri dira berriki jakinarazi dutenez, osasun alorrean herritarrak jasan ohi dituzten hizkuntz eskubide urraketen

Ondasun Higiezin Zergaren hobaria eskatzeko epea zabalik

Otsaila amaitu arteko epea dute, lehen aldiz, Ondasun Higiezin Zergaren (OHZ) hobaria eskatu nahi duten familia ugarietako titularrek, eskabidea egiteko. Deialdia eskatzaile berriei zuzendutakoa da. Beraz, lehendik eskatu izan dutenek ez dute zertan aipatu tramitea egin beharrik. Eskatzaile berriek bai ordea. Interesdunek familia ugarien titulua aurkeztu behar dute erregistroan. Eskaera orria bertan, edo usurbil.net web orrian eskura liteke.

Konpostagailua eskatzeko epeak zabalik jarraitzen du

Konpostagailua doan lortu nahi duenak urtarrila amaitu arteko epea du izena emateko. Udal teknikariak egitasmoan parte hartzerara deitzen ditu, etxean loretokei edo lur sailen bat duten herritarrak. Baita, bere esanetan, "konpostatze komunitarioa egin nahi dutenak ere". Udalak aipatu ahalegina egiteko prest dagoena lagundu nahi du. Modu honetan:

1. Konpostagailua doan emango zaie autokonpostajea egiten hasi nahi dutenei.
2. Zaborren-tasan %40ko hobaria izango dute autokonpostatzen hasten direnek.
3. Ikastaroa doan izango dute konpostatzen ikasi nahi dutenek.
4. Urtebetez teknikari baten laguntza izango dute.

Egitasmoan izen emateko epea igaro ostean, Udala konpostagailuak eskatzaileen artean banatzen hasiko da. Gerora, ikastaroak antolatzeko asmoa du.

aurrean. Horregatik, aipatu eskubideak bermatu ahal izateko EAeko administrazioari onartutako tresnak erabiltzea eskatzen die. UEMAKo Osakidetzaren azken lan eskaintza publikoari lotutako hizkuntz eskakizunen inguruko datuak bildu dituzte. Usurbilgo anbulatorioari dagokionez, 2010eko abenduaren 1erako famili mediku baten plaza betetzeko 2. perfil izatea eskatzen da.

Kultura Aholku Batzarra ostegunean bilduko da

Datorren astean, hilaren 28an asteazkena, Kultura Aholku Batzarra bilduko da arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Areto Nagusian. Potxoenea, dirulaguntza deialdia eta urteko kultur agenda izango dira aztergai nagusiak.

Datorren asteko Kultura Aholku Batzarrean, landuko den gai-zerrenda:

1. Aurreko bilerako akta onartzea.
2. Potxoenea Kultur Etxea.
3. Kulturako dirulaguntza-deialdiaren berri ematea.
4. Urteko kultur agenda: ekintzen bilduma egiteko fitxak banatzea, kultur agendaren egutegia zehaztea eta ekitaldien koordinazioa.
5. Norberak lekarkeena.



IAZ, GARAI HONETAN JARRI ZEN MARTXAN KULTURA AHOLKU BATZARRA.

Muna Lurra auzunea eraberritzen milioi bat eurotik gorako inbertsioa egingo du Udalak

Guztia aurreikusi bezala betetzen bada, Muna Lurra berrituta izango da urte amaierarako. Horretarako, milioi bat eurotik gorako inbertsioa bideratu nahi du Udalak. Urtarrila amaieran auzokideekin bilduko dira udal ordezkariak, bertan bizi direnen ekarpenak jasotzeko.

1.012.019 euroko diru-laguntza bideratu nahi du udal gobernu taldeak Muna Lurra berurbanizatzeko lanetara. Laguntza pasa den abenduaren 2an argitaratutako dekretuaren haritik dator. Ekonomiaren geldialdia suspertu asmoz herri mailako inbertsioetarako estatu fondo berezi bat sortu da, guztira zortzi mila milioi eurokoa. Populazioa kontuan hartuta, Usurbilgo udalerriari kopuru horretatik aipatutako milioitik gora euroko laguntza dagokio.

Hasi berri dugun urterako aurrekontuetan aurreikusten ez diren lanetarako bideratu daiteke aipatu diru kopurua; enplegua sustatu edota herri lanak gauzatzeko. Udal gobernu taldetik lehenetsuna

eman zaio Muna Lurra eraberritzeari. Jakinarazi dutenez, “aspaldidanik irisgarritasun arazo handiekin, zaharkitua gelditu den urbanizazioari irauli nabarmen bat eman nahi diogu, urbanizazioa berri-tuz”.

Udalerriari dagokion diru laguntza jasotzeko baldintzak zehaztuak daude. Proiektuaren nondik norakoak azaltzen dituen memoria aurkeztu behar da. Dagoeneko prest du udal gobernu taldeak eta batzorde zein osoko bilkuran bozkatu eta behar den babesa jasota, aste honetan bertan aurkeztuko du. Trabarik ez bada, aurten bertan gauzatuko lirateke Muna Lurrako berritze lanak, urte amaierarako bukatuta egon behar baitute.

Ekarpen bilketa

Proiektua Muna Lurrako bizilagunak aintzakotzat hartuta gauzatu nahi denez, urtarrila amaitzerako auzotarrekin biltzeko asmoa du udal gobernu taldeak. Helburua, aipatu herritarrek egin ditzaketan ekarpenak jasotzea litzateke, “proiektu, lan eta auzoko beharrek

hobeto asmatzeko”.

Urte amaierarako, listo

Aldaketarik ez bada, hau da, Muna Lurran burutu nahi diren lanak gauzatzeko finkatua dagoen egutegia:

-Urtarrilak 15: batzordean aurkeztu zen proiektuaren memoria.

-Urtarrilak 20: proiektua eztabaidatu eta bozketara eramateko ezohiko osoko bilkura.

-Urtarrilak 23: proiektuaren aurkezpena.

-Urtarrilak 24: diru laguntza deialdira aurkezteko epearen amaiera.

-Urtarrila amaiera: Muna Lurrako auzotarrekin bilkura, haien ekarpenak jasotzeko.

-Otsaileko lehen hamabostaldian, aurkeztutako proiektuaren erantzuna jasoko du Udalak.

-Martxoan: proiektuaren erantzuna jasotzetik hilabeteko epean, lanen izapidetzak hasita behar du.

-Abenduak 31: Muna Lurrako lanek amaituta behar lukete.

Datorren astean egingo da Gure Pakea elkartearen Biltzar Nagusia

Gure Pakea jubilatuen elkarteak ohiko Biltzar Nagusia egingo du datorren astean, urtarrilak 30 ostirala. Bilera arratsaldeko 16:30ean hasiko da Artzabalen, jubilatuen egoitza berrian. Bazkide berriak egiteko deialdia ere egin du Gure Pakeak eta, horretaz gain, kuotak ordaintzeko egunak ere finkatu dituzte.

Bazkietza kanpaina

Gure Pakeako bazkide egin nahi duenarentzat, deialdi berezia egin berri da. Usurbilen erroldatua eta jubilatua edo pensionista izatea eskatzen da. Argibide gehiago jubilatuen bulegoan.

Kuotak ordaintzeko garaia

Bestetik, kuotak ordaintzeko egunak ere finkatu dira: urtarrilaren 19tik otsailaren 13ra arte. Ordutegia,



EGOITZA BERRIAN EGINGO DA BILTZAR NAGUSIA. IRUDIA INAUGURAZIO EGUNEKOA DA.

goizeko 9:30etik 12:30era, asteleheneretik ostiralera Gure Pakean bertan.

Datorren astean, Gure Pakea jubilatuen elkarteak Ohiko Biltzar Nagusia

egin du. Deialdia bakarria izango da eta 16:30ean hasiko da. Artzabalen, jubilatuen gaur egungo egoitzan egingo da biltzar nagusia.

Larunbat honetan, Bertso Eguna Donostian

Larunbat honetan bertsoak nagusi lizango dira Donostian. 12:00etan bertsolariak Bulebarrean ibiliko dira. 18:00etan hasiko da ekitaldi nagusia Kursaal; eta gaueko 21:00etan afaria eta festa Kursaal Martin Berasategi jate-txean. Sarreraren erreserbak egiteko epea urtarrilaren 22an amaitzen da, www.bertsozale.com webgunearen bitartez edo 943 69 41 29 telefono zenbakira deituz.

D3M plataformaren alde sinadura bilketa

Aste hasierarako 160 herritarrek Amana zuten sinadura Usurbilen, D3M (Demokrazia 3 Milioi) plataforma sortzearen alde. Martxoaren 1ean EAEn burutuko diren hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko pasa den astean ekin zioten sinadura bilketari. Datozen egunetan oraindik ere udaletxera hurbil daiteke plataformarekin bat egin nahi duenak. Honako ordutegian:

- Larunbatera arte (urtarrilak 24): goizez, 9:30-13:30.

- Ostegunean (urtarrilak 22): goizez, 9:30-13:30. Arratsaldez, 16:30-19:00.

Inguruko herrietan ere bai

Usurbilgoa izanik baina kanpoan lan egiten duenak, inguruko herrietan ere sinadura eman dezake. Datu gehiago: www.demokrazia3m.com

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea - 943 363 348 - 809 888 021

“SoOoFING”, egongelako gorabeherak

Otsailaren 14an, Txerrikiko Gazte Kuadrillaren estraineko antzezlan

Udarregi ikastolako DBH-ko 4.mailako ikasleak Bartzelonara joango dira aurten, ikasturte amaierako bidaian. Errifak eta kamisetak salgai jarri dituzte laguntza jasotzeko. Baina ez hori bakarrik. Dirua aurrezteko ekimen berritzaileagorik ere abian jarri baitute. Txerrikiko Gazte Kuadrillako kideak “SoOoFING” izeneko estreinako antzezlanaren prestatzen dabilta. Sutegin otsailaren 14an eskainiko dute, protagonista gisa Leire Iturrioz, Jon Etxabe eta Ander Izeta herriko antzerki taldeko hirukote gazte ezaguna duen emanaldia.

NOAUA! Ikasturte amaierako bidaia merkeagoa izateko, askok errifak saldu edo salmenta postuak jarri ohi dituzte. Zuek ordea antzezlanaren prestatzen ari zarete?

Ander Izeta. Hasieran klasekoekin egiteko asmoa genuen, baina azkenean jendea ez zen animatu. Bi lagun banituen, DBH 4-koak izan ez arren, antzezlan bat eskaintzeko prest zeudenak. Ideia proposatu eta baiezkoa eman zidaten. Beti gauza berak eginez gero, jendea nazkatu egiten da azkenerako. Zerbait berritzailea egiteak, antzezlan batek adibidez, jende gehiago erakar dezake. Halere, era berean errifak saldu dira, kamisetak ere... Oraindik salgai daude. Antzezlanaren emanaldi eguna bera ere aprobeixatuko da salmentarako. Aretoa beteko balitz, ederki logoke.

N. Hirukote ezaguna zarete, Txerrikiko antzerki taldeko kideak. Zer moduz moldatzen zarete bakarka hasi berri duzuen ibilbide berrian?

Leire Iturrioz. Ondo uste dut. Errazagoa ere bada, ondo konpontzen gara. Denon artean hartzen ditugu erabakiak.

A. I. Entseguetarako ere errazagoa da. Gainera hirurok taldean eta batera ondo moldatzen gara. Gustura gabiltza lanean. Alex Tellok ere laguntzen digu.

Jon Etxabe. Askotan uste da antzezlan



IRUDIAN, TXERRIKI ANTZERKI TALDEKO HARROBIA. OTSAILAREN 14AN ESKAINIKO DUTE LEHEN ALDIZ “SOOOFING” ANTZEZLANA.

nak zerbait handia izan behar duela, helduekin, gidoiak ondo jarrita. Baina gazteok ere susta dezakegu kultura herri mailan. Antzezlanak gazteek eginda nola funtzionatzen duen ikustea nahi dugu. Inor animatzen bada, gurekin hitz egin dezake.

ANDER IZETA

“Esperientzia berri bat da. Seguru zaila izango dela, baina ahalik eta ondoen egiten saiatuko gara”

N. Hilabete batzuk daramatzazue prestaketa lanetan. “SoOofing” antzezlanaren ideia nola bururatu zitzaizuen?

J. E. Kontuan hartu nahi genuen, hainbeste material erabili gabe antzerki bat egiteko garaian, gauza sinpleekin zer gauza dauden egitea erakutsi genezakeela. Horretan pentsatzen jarrita, Anderrek izan zuen sofa erabiltzearen ideia. Handik osatu genuen argumentua; bizi osoa sofa berarekin egon zen emakumea, haurdu zegoenetik zahartu arte burura etortzen zitzaizkion istorio-

ekin.

A. I. Txerrikikoek askotan zioten sofarekin antzezlanen bat egin behar genuela. Ideia, batez ere, hortik etorri zen. Aspaldi aipatu genuen Txerrikin, baina hamabost pertsona sofa batekin antzezlan egitea zaila zen. Aldiz, hiru-ron artean zergatik ez genuen egingo otu zitzaigun.

N. Aktore lanetan ikusiko zaituztegu estreinaldi egunean. Baina baita emanaldia burutzeko egin beharreko gainetarako zereginetan ere?

A. I. Gidoia guk idatzi dugu, baita kartelak diseinatu ere. Emanaldi egunean, gutako bat oholtzaren atzealdean dagoenean, hark maneatuko ditu musika eta argiak. Esperientzia berri bat da. Seguru zaila izango dela, baina ahalik eta ondoen egiten saiatuko gara. Ia zer ateratzen den.

N. Epe luzeagora begira, hirukote gaztea handitzen ikusiko al dugu?

A. I. Kiroiak hartua du dena, eta antzerkirako jende gutxi geratzen da. Nahiz eta deialdi irekiak egin, eta guk komentatu, jende asko ez da animatzen. Ez dakit zer den, lotsa edo izango da.

L. I. Bururatu zaigu, baita hitz egin

ere, baina orain ondo gaudela uste dugu. Hiru zenbaki polita da. Hemendik urte batzuetara ez dakigu zer gertatuko den. Jendeak lotsa du. Antzerkirako lotsa kendu egin behar da. Lotsa baduzu, ezin duzu antzerkirik egin.

N. Emaidza otsailaren 14an. Zer nola-ko itxura hartuko diote ikus-entzuleek emanaldiari?

L. I. Barre egiteko antzezlan bat ikusterera datorrela pentsa dezake jendeak. Baina ez da komedia bat.

J. E. Txerrikik badu estereotipo bat, dena komedia dela dirudiena. Horrek inpuskatu nahi genuen. Komedia kutsu batekin, era berean drama edo puntu tragiko hori txertatu nahi genuen.

A. I. Ikuslea etortzen denean ere, egingo ditugun eszena batzuk hain dira ohi-koak. Etxean gertatzen zaizkien egoerak direla esango dute askok.

N. Oholtza gainean ageriko den sofa, gutako edonorena izan liteke beraz?

A. I. Jende asko, seguru, harrিতuta geratuko da. Jendea akaso komedia bat ikusterera etorriko da. Badu komedia kutsua, baina gehiago da bizitza bera, bizitzaren gazi-goza.

L. I. Egunero gertatzen diren gauzak sofaren. Ama eta semearen artean, amonartean...

N. Sortze lana erraza egin al zaizue?

A. I. Sortutakoa antzeztea beti ere errazagoa da. Testua ikasi edo barneratu eta kito. Hau hartu eta idatzi beharra dago.

Baina egia esan, egunean bertan ideia bururatu, aurkeztu eta asko gustatu zen. Orduan hiruron artean ideia hori garatzen hasi ginen.

J. E. Guri gustatzen zaigun estiloa da. Elkartzten hasi ginen, inprobisatzen baina eskema batekin. Gero erabaki genuen gidoi bat egin behar zela, baina inprobisatutakoaren arabera.

L. I. Buruan eskema bat izanda, errazagoa da.

N. Denbora daramazue antzerki kon-tuetan. Aurrera begira, mundu honetan murgiltzeko pauso gehiago emateko asmoa duzue?

L. I. Antzerkia zaletasun bezala ondo dago, baina lan gisa izatea oso zaila da.

A. I. Gu komentatzen ari gara, haur txikiei hiruron artean klase txiki batzuk emateko. Baina oraindik airean dago, agian izan liteke. Guk dakigun apur hori beste batzuei irakatsi eta txikitatik kultura sustatzeko, ikusten da falta handia dagoela hemen. Denek kirolera jotzen dute.

N. Herrian aktore falta bai, baina antzerkirako zaletasun handia dago. Txerrikiko emanaldiek herritar asko erakarri dute?

L. I. Jende asko etortzen da ikustera. Baina jendea aktore lanak egitera ez da animatzen. Oholtzara igotzera ez dira ausartzen.

A. I. Herritarrek emanaldia ikustera etortzera animatu nahi genituzke, eta ahal bada aretoa betetzera. Askotan



ETXEKO SOFAREN INGURUAN GERTATZEN DIREN ISTORIOAK BILTZEN DITU ANTZEZLANAK.

Sutegin oso antzezlan onak eskaini arren, aretoa ez da bete izan. Guri ez digu axola emanaldia bitan eskaintzea, bitan beteko bada.

J. E. Beti ere, jendeak jartzen duen aitzakia sarrerak garesti daudela izan ohi da. Baina hemen oso antzezlan politikak eskaini dira. Doan izanda ere, ez da jende asko etorri.

N. Zabaldtu duzue bide berri bat izan liteke. Zuek jarritako helburuak edo antzekoak betetzeko, antzerkia baliatzea alegia?

A. I. Mundiala litzateke urtero ikasturte bakoitzak berea egitea. Klasekoak elkartu, Sutegin antzezlan bat eskaini eta ziur, aretoa beteko litzatekeela.

N. Kanpora joateko ere jada dei batzuk jaso dituzue?

A. I. Bai. Lokalen bat duenari emanaldia eskaintzea interesatzen bazaio, lasai deitu diezagula eta gu joango gara. Herriren batetik baten batek deitu nahi baligu, joango gara.

Sofa, antzezlaneko ardatz

Antzezlan: "SoOoFING".

Aktoreak: Ander Izeta, Leire Iturrioz, Jon Etxabe.

Sinopsia: Urteen joan etorri azkarrean badugu beti gurekin dagoen bat, baina, ez gara inoiz ohartzen hor dagoela. Ez da gure bikotea, ez seme-alaba, ezta txakurra ere. Etxeko "Sofa" da. Sofa beti hor dago momentu on eta txarretan, erraz eta zailtan, egun arrunt eta ez arrunt guztietan...

Marik, bere bizitzako urte gehienak

sofa berdinarekin pasa ditu eta gaur, sofa aldatzea erabaki du. Baina, sofari begiratzen dionean hainbat oroitzapen etortzen zaizkio burura... Zenbat bizipen gertatu diren Mariren sofaren inguruan!

Estreinaldia: otsailak 14 larunbata, 19:30ean, Sutegin.

Nori zuzendua: edozeinentzat egokia, baina egokiagoa 12 urtetik gorakoentzat.

Sarrerak: alde zuzenetik salgai, ikas-



tolako idazkaritzan 3,5 eurotan. Takilan 5 eurotan.

Antolatzailea: DBH 4-ko ikasleak eta Txerriki Gazte Kuadrilla.

Oharra: sarrerako dirua DBH 4ko ikasleek urtero egin ohi duten ikasturte amaierako bidaiarako izango da.

Argazki bat herriari

Alor desberdinetan Usurbil eta usurbildarrei buruz jasotako datuak liburuxka batean bildu eta etxez etxe banatu ditu Udalak. Aztiker ikerketa soziologikoan espezializatutako enpresarekin burututako elkarlanaren emaitza da. Biztanleria, hezkuntza, hizkuntza edo ekonomia gaietara lotutako informazioa usurbil.net atari berrituan ere kontsulta daiteke. Udalerria hobeto ezagutu dezagun.

Barreiatua zegoen Usurbil eta usurbildarrei buruzko informazio estatistikoa biltzen aritu da Udala, Aztiker ikerketa soziologikoaren alorrean jarduten duen enpresarekin elkarlanean.

AZTIKER IKERKETA TALDEA

“Helburua, edonork Usurbilen lehen argazki horretara gerturatzeko modua eskaintzea da”

Eta beste inon aurki ez genezakeen informazioa eskuragarri dute herritarrek dagoeneko; herriko biztanleri bilakaera, sektore ekonomiko, etxebizitza kopuru, hizkuntza ezagutza edota hezkuntza ereduak buruzko informazio zabala, beste hainbat eremurekin, Buruntzaldea, Gipuzkoa, Euskal Herria, Europa edota mundu mailarekin alderatuta.

Ikuspegi zabala eskaintzen du beraz, pasa den abenduaren 18an Suteegin aurkeztu zuten ikerlanak.

Datu piloa izanik, informazio guztia modu erakargarrian prestatu nahi izan dute. “Helburua, edonork Usurbilen lehen argazki horretara gerturatzeko modua izatea da”, adierazi zuen Aztikerreko ordezkari Amaia Elizagaratek aurkezpen saioan.

Web gunean, datu eguneratuak

Datuak “Usurbil zenbakitan” izeneko liburuxkan bildu dira, baina



AZTERKETAK DATU ESAGUNRATSU ASKO EMAN DITU. IRUDIA: JON MARKEL

usurbil.net web orrialdean ere kontsulta daitezke. Egitasmoaren aurkezpen egunean eragileek iragarri zuten, denborarekin aipatu atarian argitaratzen diren datuak eguneratzen joango dira.

Biztanleak lurraldean

Azken 7 urteotan goruntz egin du

BIZTANLEAK	KOPURUA
Biztanleak	5.887
Azalera (metro karratutan)	25,6
Dentsitatea	229,6

Iturria: udal-errola, Datu Talaia eta INE, 2008.

-Biztanleri dentsitatea, Buruntzaldeko eta Gipuzkoako batz bestekoaren azpitik, eta Euskal Herri, Europa eta mundu mailakoen gainetik dago.

-1900. urtean 1.831 biztanle. Hirukoiztu egin da biztanleria ordu-

tik. Igoera handiena 60. hamarkadan. Orduetik hazkundera dezente makaldu da. 80-90 hamarkadetan biztanleria galdu arren, azken zazpi urteetan galdutakoa berreskuratu da. Gipuzkoa, Euskal Herria eta Europa baino gehiago hazi da.

Jarduera ekonomikoa

Gizonezkoak industrian, emakumezkoak zerbitzuetan

SEKTOREAK	KOPURUA	LANDUNAK (%)	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
Nekazaritza	76	3	3,9	1,7
Industria	1.042	41,7	56,8	17,1
Zerbitzuak	1.383	55,3	39,3	81,2
Guztira	2.501	100	100	100

Iturria: biztanleria zentsuak (Datu Talaia, INE). 2001

-Gizonezko gehienak industrian daude; emakumezkoak, gehienak, zerbitzuen sektorean.

-954 emakumezko okupatu dago. -Gaur egun, industriak duela hogeita urte zuen pisuaren erdia baino

gutxiago du, zerbitzuen sektorearen mesedetan.

-Beste eremuetan joera bera.

Jaiotzak, heriotzak baino gehiago

2002-2006	2002-2006
Jaiotzak	339
Heriotzak	201
Berezko hazkundera	138
Jaiotza tasa batz bestea (mila biztanleko)	12,2
Heriotza tasa batz bestea (mila biztanleko)	7,2

Iturria: udal-errola, Datu Talaia eta INE, 2008.

-Berezko hazkunde positiboa; batz besteko urteko 68 jaioberri eta 40 lagun hildako.

-Jaiotza-tasa Buruntzaldea, Gipuzkoa, Euskal Herria eta Europako batz besteko gaineratik. Halere, alde ez oso handiz. Mundu mailakoaren azpitik.

-Heriotza tasa beste eremuetan baino txikiagoa da Usurbilen eta Buruntzaldean.

-Jaiotza-tasa Buruntzaldean, altuene-

rik baxuenera: Astigarraga, Urnieta, Usurbil, Hernani, Lasarte-Oria, Andoain.

-Inflexio puntuak jaiotza-tasan: -1975-90. hamarkada: urte eta mila biztanleko 18 haur jaiotzetik 7,7rainoko jaitsiera.

-90. hamarkada-gaur egun: igoera, 12,2-ko batz bestekoraino.

Joera berbera Buruntzaldea, Gipuzkoa eta Euskal Herrian.

Belaunadi berriak, euskaldunagoak

HIZKUNTZA GAITASUNA	KOPURUA	%
Euskaldunak	3.697	72,3
Ia euskaldunak	718	14
Erdaldunak	697	13,6

Iturria: biztanleria zentsua (EUSTAT). 2001

-Beste eremuetan baino euskaldun gehiago.

-Euskaldun kopuruak gorantz, ia euskaldunena beherantz eta erdaldunena nabarmen beherantz.

-Euskaldunagoak dira belaunaldi berriak zaharrak baino; euskararen

ezagutza gora, gazteen artean batez ere.

AMA HIZKUNTZA	%
Euskara	61,3
Gaztelera	33,6
Biak	4,1
Beste	1

Etxebizitza kopuruak gora egin du

Urtea	Biztanleak	Etxebizitzak	Biztanleak/Etxebizitzak
1981	5.841	1.650	3,5
1991	5.373	1.644	3,3
1996	5.265	1.776	3,0
2001	5.257	2.467	2,1

Iturria: biztanleria zentsuak (Datu Talaia, EUSTAT eta INE).

-Azken hoge urteetan, etxebizitza kopuruak nabarmen gora eta biztanle kopuruak behera.

-Etxebizitzen %75,2 etxebizitza nagusi gisa erabiliak. Gainerakoak hutsik edo bigarren etxebizitza gisa erabiliak; 613 (%24,8), beste eremuekin alderatuz, kopuru dezente

handiagoa.

-Bizitza bakarrekoak; %14,1, beste eremuetan baino handiagoa. Bizitza askotakoak; %85,9.

-Jabetza nagusi etxebizitza erregimenari dagokionez; %89,1. Alokairukoak, %6,5, beste eremuetan baino zertxobait gutxiago.

Gizonezkoak, gehiago

SEXUA	KOPURUA
Gizonezkoak	3.030
Emakumezkoak	2.857
Guztira	5.887

Iturria: udal-errola. 2008

-Usurbil, zahartzen ari den udalerria dugu. Nabarmen zaharragoa, mundu osoko batz bestekoa baino. Aldiz, Buruntzaldea, Gipuzkoa eta Euskal Herriarekin alderatuta, udalerririk gazteagoa da.

-Kopurua ia orekatua, gizonezko eta emakumezkoen artean.

-Adin talderik handiena, 30-50 urte artekoak.

-Zaharrenen artean, emakumezkoak nagusi.

-Aurreko hamarkadetan nabarmen murriztu arren, azken urteotan gorantz doa haur eta gazteen proportzioa. Hala ere, duela mende laurdeneko kopuruetatik oso urruti gaude.

D eredia nagusi

Unibertsitate aurreko ikasketetan matrikulatuak

HEZKUNTZA EREDUA	%
D _____	85,4
B _____	14,6
A _____	0

Iturria: irakaskuntza estatistikak (EUSTAT). 2006-07

-Haur Hezkuntza, LH eta DBH-n ikasleen %100a D eredian.

-1984an D eredian matrikulatutako HH eta LH-ko ikasleak, %44. Ordutik, gorantz etengabe. 1998-99 ikasturtean, ikasleen %100a.

-Gainerako eremuetan baino igoe-za azkarrago eta handiagoa.

-A eredia 1990-91 ikasturtean eta B eredia 1998-99 ikasturtean desagertu ziren.

Buruntzazpi, Usurbil eta Lasarte-Oriako txirrindulariak bilduko dituen eskola berria

Garai batean zegoen kirol taldea desagertu zenetik, azken urteotan herriko txirrindulariek inguruko beste herrietan osatu diren taldeetara jo behar izan dute. Baina jada bidaia neketsurik ez dute egin beharko. Hemendik aurrera, zale-tuek etxean bertan izango dute ikasi, prestatu eta trebatzeko aukera, Buruntzazpi txirrindularitza eskola berria sortu baita. Usurbil eta Lasarte-Oriako zaletuen bilgunea izango dena.

NOAUA! Txirrindularitza eskola. Zer modutan definitu liteke?

